

PREBENFAMILIA Aiara. III. fasea (familiak eta tokiko ordezkari politikoak)

- **Data: Maiatzaren 13. (Larunbata).**
- **Tokia: Laudioko Kultura Etxea**
- **Ordutegia: 10:30 - 13:30**

ONDORIOAK

1. DINAMIKA

Zer eginkizun izan dezakete familiek komunitateko prebentzio-eragile gisa?

1. Proiektu adostuak gauzatzea, familiako jarduketa-protokoloak barne hartzen dituztenak, gizarte-jazarpenaren, absentismoaren eta tratu txarren gaiak lantzeko. Arazoak eta beharriak detektatzea. Jarduketa-protokoloak sortzea eta ezagutzea.
2. Jardunbide egokietarako jarraibideak ematea gurasoei, prebentziorako erreferentzia-eredu gisa.



3. Familia gehiago erakartzea, sarea handitzeko. Sarean hobeto komunikatzen gara eta kezkek partekatzen ditugu.
4. Gurasoen eta seme-alaben arteko kalitatezko harremanak berreskuratzea, eta sistemaren esku ez uztea. Beharrezkoa da gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa sustatzea.
5. Ikastetxeekin lankidetzan aritzea, eduki pedagogikoetatik harago; loturak ezartzea eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea.
6. Batzuetan, seme-alabak gehiegi babesten ditugu; haien arazoak guk konpontzen ditugu. Ezet esaten ikasi behar dugu. Frustrazioak bere lekua izan behar du ohiko hezkuntza-estiloan.
7. Erreferentziazko eredu izatea, heztea. Familiak dira adingabeen hazkuntza eta garapenaren oinarria; txiki-txikitatik haien erreferente izan behar dugu prebentzioaren arloan.
8. Aldizka erakundeekin biltzea eta eragiten diguten gaietan parte hartzea.
9. Prebentzio-teknikarien lana agerian jartzea eta gauzatzen diren programa eta planak ezagutaraztea; batzuetan, erakundeak berak ere ez du horien berri izaten.
10. Eskola-kontseiluetan Udala ordezkatzeko duten pertsonekin harremanak ezartzea.
11. Hiru hilez behingo bilerak egitea guraso-elkarteen, politikarien eta talde teknikoaren artean, eta erakundeek zer egiten duten jakitea. Familiek batzorde irekietan parte hartzen dutela bermatzea.
12. Errespetua eta aniztasuna sustatzea, familia mota guztiak barne hartuz aniztasun horretan. Batzuetan ez dira gainerakoak errespetatzen, aurreiritziak ditugu; aniztasunaz hitz egiten dugu, baina gero ez dira beti den-denak onartzen.

2. DINAMIKA

Familien, ordezkari politikoen eta prebentzioko talde teknikoen arteko lankidetzaz sustatzeko ideiak (eraginkorrak, errealistak eta zehatzak): espazioak, testuinguruak, lekuak, moduak, epeak...

1. Aisialdi osasungarria sustatzea. Aktiboak izatea. Denbora libre antolatzea. Familia barruko aisialdiko jarduerak antolatzea.
2. Aisialdirako espazioak eta denbora librerako klubak sortzea, eta elkarteekin lankidetzan aritzea, batez ere 9 - 13 urte arteko hurrei begira. Garrantzitsua da aisialdiaren kontsumitzaile pasiborik ez sortzea espazio horietan.
3. Boluntarioritza eta hirugarren sektorearekiko harremana sustatzea (irabazi asmorik gabeko erakundeak).
4. Lanbideekin lotutako motibazio-tailerrak egitea. Eskola-ordutegitik kanpo bertaratu nahi ez badute, eskoletan halakoak egin daitezela sustatu behar da.
5. Familiako tailerrak egitea guraso eta seme-alaben artean.
6. Kontsumo arduratsua agerian jartzea. Osasunarekin, familiekin, teknologia berriekin eta elikadura osasungarriarekin lotzea.
7. Ikastetxeekin lankidetzan aritzea; curriculumetik harago joatea.
8. Motibazio-hitzaldiak ematea, familiak prebentzio-programa eta -jardueretan parte hartzerantz animatzeko.
9. Aisialdi-esperientziak partekatzea guraso eta seme-alaben artean.
10. Familiei eragiten dieten batzordeetan parte hartzea: hezkuntza, gazteria, jaiak, hirigintza...
11. Denen artean tailerrak egitea, eta gazteek elkarri eta guri irakastea. Adibidez, teknologia arduratsuekin lotutako edukiak irakats ditzakete, besteak beste. Hori ere beren autoestimua hobetzeko modu bat da.



12. Neska-mutikoak gonbidatzea udal-batzordeetan parte hartzerantz.
13. Guraso-elkarteen arteko komunikazioa hobetzea, eta guraso-elkarte, familia eta erakundearen agendak bateratzea.
14. Guraso-elkarteen egun bat zehaztea.
15. Osasun festa antolatzea.